

Zuzenketarako koaderno

2
0
0
9
/
1
0

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

**Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin
elkarreraginean aritzeko gaitasuna**

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat izar daude gure eguzki sisteman?

- A Zenbait
- B Zehazki, 3
- C Eguzki izeneko izar bat
- D Bi: bata, Eguzki izenekoa, eta bestea, Solikus izenekoa.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat izar daude gure eguzki sisteman?

- A Zenbait
- B Zehazki, 3
- C Eguzki izeneko izar bat
- D Bi: bata, Eguzki izenekoa, eta bestea, Solikus izenekoa.

Beste galdera batzuetan, aldiz, galdera osatzeko eskatuko dizute puntuekin dagoen tarte erabiliz horretarako:

Idatz itzazu gure eguzki sistemako 3 planetaren izenak:

.....



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.
Egin azkar lana, denborarik galdu gabe.**

Eskolan ikasi duzu gure ingurua nolakoa den eta berarekin nolako harremanak izan; asko ikasi duzu materialez, izaki bizidunaz, indarrez, osasunaz, unibertsoaz...

Inguruan dagoena hobeki ulertu ahal izateko, metodo zientifikoa erabiliz esperimenduak egiten ditugu eta emaitza lortu arte arrazoiak ematen ditugu. Horixe bera egingen duzu ondoko ariketetan.

1. Metodo zientifikoa erabiliz, ondoko ekintza hauek zer ordenatan egingen zenituzke? Adierazi 1, 2, 3 eta 4 zenbakiekin.

2 Egoera edo fenomeno horretan zer gertatu den azaltzen saiatzea.

4 Esperimenduak frogatzea eta gertatu dena azaldu ahal izatea.

1 Egoera edo fenomeno bat behatzea.

3 Esperimenduak egitea, gure azalpena ona den jakiteko.

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Esaldi guztiak behar bezala ordenaturik (2, 4, 1, 3)


2. Orain gogora ekarri behar dugu zer egiten duten imanek; badakigu imanek zenbait objektu erakartzen dituztela, marrazkian ageri den bezala:



Badira imanek erakartzen ez dituzten beste objektu batzuk, objektu horiek egiteko erabili den materialaren arabera. Objektuekin esperimentuak egin eta bi multzotan sailka ditzakegu:


- *Magnetikoak: imanek erakartzen dituztenak*
- *Ez-magnetikoak: imanek erakartzen ez dituztenak*

Hona hemen 9 objektu. Inguratu biribil batekin objektu magnetiko guztien letrak:




Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	4 objektuak zuzen aukeratu (C, D, F eta I), zehatz-mehatz.


3. Puxika bat airez bete dugu. Hagatxo baten muturrean jarri dugu eta pisu bat bestaldean, orekaturik gera dadin.



Jarraian, puxika baten bazter batean zizt eginen dugu, korapiloaren ondoan (ez lehertzeko). Minutu baten ondoren puxikari begiratuko diogu. Beha itzazu A eta B marrazkiak: bata ongi dago eta bestea gaizki.



A marrazkia




B marrazkia

Zein dago ongi? Zergatik?

.....

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Ez du erantzun zuzena adierazi (B), edo argudioa ez da zuzena.
2	2	Erantzun zuzena eman du (B) eta azalpena ere zuzena da (puxikan dagoen aireak pisua du, eta aireak ihes egitean hagatxoak oreka galtzen du).

Erreparatu Eguzkiari, Lurrari eta Ilargiari.



4. Nafarroatik begiratuz gero, zer ilargi mota izanen da?



A



B



C



D



- A. Ilgora
- B. Ilbetea
- C. Ilbehera
- D. Ilberria

5. Nafarroan, neguan, egunek argi-ordu gutxiago dituzte eta hotz handiagoa egiten du...






- A. eguzkia udan baino urrunago dagoelako.
- B. eguzkia udan dagoen distantzia berean dago, baina itzalean denbora gehiagoz egoten da.
- C. eguzki-izpiak okertuago iristen direlako.
- D. 4 urtaroretan eguzkia distantzia berean dago. Arrazoia, honako hau: ordu aldaketa.

6. Behatu marrazkiari. Erreparatu zuhaitzen itzalei. Aukeratu zuhaitzaren zein itzalek irudikatzen duen goizeko lehen ordua eta dagokion letra biribil batez inguratu.

Eguzkia ekialdetik ateratzen da
Eguzkia mendebaldean sartzen da



7. Neguan elurra egiten du. Behatu taula honi. Bertan Nafarroako 4 herri daude, baita bakoitzean zer temperatura egiten duen, egunez eta gauez, eta hodeirik baden edo ez den.

	 	 	
Herria	Egunez	Gauez	Hodeiak
Artaxoa	5° C	-5° C	EZ
Orkoien	2° C	0° C	EZ
Sartze	0° C	-10 C	BAI
Cabanillas	10° C	1° C	BAI

Zure ustez, zein herritan eginen du errazen elurra?

Zergatik?

.....

.....

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Sartzen eginen duela adierazten du, eta baldintza bakar bat emanez argudiatzen du (temperatura edo hodeiak).

2	2	Sartzen, hotz egiten duelako (edo tenperatura 0-tik beherakoa delako) eta hodeiak daudelako. Bi baldintzak aipatzen ditu: tenperatura eta hodeiak.
---	---	--

8. "Altxorraren bila" izeneko jolasean parte hartzen ari gara. Badakizue zer den: arrastoei jarraitu behar zaie altxorrera iritsi arte. Lehen arrastoa hau da:

09:00ak dira. Eguzkia dago. Altxorra gugandik 25 urratsera dago, iparrerantz.

Iparrerantz ibiltzen hasteko, non egon behar du eguzkiak?

- A. Aurrean
- B. Atzean
- C. Eskuinean
- D. Ezkerrean


Zientzialariek frogatu dute elikadura osasungarriaren, atsedanaren eta higienaren ohiturek hazkuntzan eta garapenean eragiten dutela.

9. Adierazi "X" batez zein ohiturak laguntzen dizun osasuntsu izaten:

- Hortzak garbitzea otordu bakoitzaren ondotik.
- Kremaz betetako opil bat askaltzea.
- Egunero 10 orduz lo egitea.
- 23:30ean oheratzea.
- Bideo-kontsolarekin egunean 2 ordu baino gehiago jolastea.
- Kirola maiz egitea.
- Paseatzea.
- Goizean, bizkarreratzen dugun motxilan beharrezkoa duguna soilik sartzea.
- Telebista ikustea gosaltzen edo bazkaltzen ari zaren bitartean.
- Arraina astean behin gutxienez jatea.

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	5 aztura osasuntsu adierazi ditu (osasuntsuak ez diren beste batzuk adierazi baditu ere).
2	2	6 aztura osasuntsuak adierazi ditu, zehatz-mehatz, osasuntsuak ez direnak markatu gabe.

10. Gure zentzumenen bidez gure inguruko informazio asko lortzen dugu. Esate baterako, honako marrazki honetan entzumenarekin zerikusia duen fenomeno bat irudikatzen da:



Nola du izena fenomeno horrek?

Azaldu zer gertatzen den:

.....

Zuzentze irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	Fenomenoaren izena aipatzen du (oihartzuna) baina ez du azalpenik ematen.
2	Fenomenoaren izena aipatzen du (oihartzuna) eta azalpena ere ematen du (soinuak mendien kontra jotzen du, errebotatu eta itzuli egiten da, gure ahotsa beranduxeago entzuten dugu).

11. Izaki bizidunak aztertu nahi ditugunean, multzotan sailkatzen ditugu. Adibidez: ornodunekin 5 multzo egiten ditugu, eta multzo bakoitzeko animaliek ezaugarri komunak dituzte.

Jarri "X" bat behar den tokian, animalia bakoitzak zer jaten duen, nola ugaltzen diren eta zein multzotan sailkatzen den jakiteko:

	Elikadura		Ugalketa		Saikapena				
	Belar-jalea	Haragi-jalea	Obi-paroa	Bibi-paroa	Ugaz-tunak	Hegaztiak	Narrastiak	Arrainak	Anfibioak
		X		X	X				
	X		X			X			
		X		X	X				
		X	X						X
		X	X					X	
		X	X	X			X		

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Hiru kategorietan (elikadura, ugalketa, saikapena) 2 marka edo gehiago oker edo jarri gabe utzi ditu. Kategoria bakoitzari puntu bat emanen zaio gutxienez 5 "X" zuzen jarriz gero. <i>Oharra: "Ugalketaren" kategorian, sugearen kasuan, edozein hautaketa ontzat emanen da, eta ontzat emanen da 2ak markatzen baditu ere.</i>
1	1	Kategoria bat ongi eta 2 gaizki.
2	2	Bi kategoría ongi eta bat gaizki.
		Hiru kategoriak ongi.

12. Erreparatu animalia hauei:



A



B



C

Animalia hauetatik, zein EZ da kaltegarria landareentzako?

- A. A
- B. A eta B
- C. C**
- D. B eta C


13. Behatu marrazki hauei (haritza, galburua, izeia). Landare hauek, oro har, altuera (altitude) desberdineko tokietan hazten dira.



A




B



C

Marrazkiko paisaian landatu beharko bazenitu, zure ustez non haziko lirateke ongien? Jarri bakoitzari dagokion letra aukeratu duzun tokian:



Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Hiru erantzunak dira zuzenak (C, A, B, goitik behera hartuz).

Bizitzeko ura beharrezkoa da, eta egoera fisiko ezberdinetan dugu: solidoa poloetan, likidoa itsasoetan eta ibaietan, eta ur-lurrun bezala airean eta hodeietan.


Uraren zikloaz ari garenean, urak Lurrean toki bat baino gehiago betetzen duela ikusten dugu, eta egoera fisikoaz aldatzen dela, etengabeko ibilbide batean.

Ondoren ibilbide horietako batzuk ikusiko ditugu: itsasotik hodeietara, hodeietatik lurrera.... Eta uraren propietate batzuei buruz ere ikertuko ditugu.

Dena den, garrantzitsuena zera da: uraren kontsumoarekin oso kontuz ibili behar dugula eta modu egoki batean erabili behar dugula.

14. Idatzi marrazkiko laukitxoetan gertatzen dena deskribatzeko izenik aproposenak, ondoren ematen dizkizugunak erabiliz.

Kondentsazioa – Lurrunketa - Elurra - Infiltrazioa - Euria



Zuzentze irizpideak

Kodea

Puntuazioa

Erantzuna/k

0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	4 erantzun zuzen eman ditu.
2	2	5 erantzunak zuzen eman ditu.

15. Lurrean ura toki ezberdinetan dago (ozeanoetan, ibaietan, aintziretan, urtegietan, putzuetan, hodeietan...). Jakinen duzunez, ibaiek, lakuek eta urtegiek batzuetan ur gehiago dute beste batzuetan baino. Uraren ziklo naturalaren arabera, Lurrean dagoen ur-kopurua...


- A. neguan udan baino handiagoa da.
- B. EZ da beti bera, urteen joan-etorriarekin aldatzen delako.
- C. beti bera da, baina urak egoera bat baino gehiago hartzen du.
- D. udaberrian neguan baino handiagoa da.

16. Proba bat egin behar dugu. Ura duten tamaina bereko 3 edalontzi hartzen ditugu, eta edalontzi bakoitzean honako produktu hauetako bat botako dugu: gatza, olioia, hareia.

Koilaratxo batekin nahasi ondoren geldirik utziko ditugu 2 minutuz.



Idatzi edalontzi bakoitzaren azpian zer produktu bota dugun:



hareia

gatza


olioia

Zuzentze irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	Hiru erantzunak zuzen (Harea, gatza, olio)

17. Bigarren proba bat egin behar dugu. Ur-kopuru bera botako dugu tamaina bereko 3 edalontzietan.


Edalontzietako bat izozkailuan sartuko dugu, -3°C -ko temperaturan. Beste edalontzi bat eguzkitan jarriko dugu. Hirugarrena ikasgela utziko dugu, estalita.

Nola egongo dira edalontziak biharamunean? Adierazi zer gertatu den edalontzi bakoitzarekin, gezien bidez.



Zuzentze irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	Hiru geziak zuzen. Ontzat emanen da gauza bera beste nolabait adierazten badu.


18. Hagatxo batek mutur batean pisu txiki bat du eta beste muturrean urez busti-busti egindako zapi bat; orekan dago. Denbora batera, hagatxoak oreka galdu du eta zapia lehortu da.



Gertatu dena zera da: zapiaren ura....

- A. solidotu da eta egoera likidoan baino pisu txikiagoa du.
- B. lurrundu da eta airera pasa da.
- C. zapian guztian zabaldu da.
- D. hagatxoan barna pisu txikiraino joan da.

19. Edalontzi batean izotz-koskor bat jartzen dugu eta gero urarekin betetzen dugu goraino.... Zer gertatuko da izotz koskorarekin?



- A. Edalontzitik aterako da.
- B. Edalontziaren erdian geldituko da.
- C. Ur gainean geldituko da.
- D. Hondoan geldituko da.

Zientziak eta teknologiak bizitza errazagoa egiten digute. Adibidez: makina sinpleek pisu handiko objektuen desplazamendua errazten digute, bonbillek argia egiten digute, ordenagailuari esker informazioa eskuratzen dugu eta elkarren artean komunikatzen ahal gara, aurkezpen txukun batekin lanak egin ditzakegu...


20. Nola deitzen zaio marrazkiko asmakuntza edo makinari?



.....

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Palanka.

21. Marraztu gezi bat pisua goratzeko zer aldetara bultzatu edo tiratu beharko den jakiteko.



Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Gezia egoki marraztu du, palankarekiko zut (pixka bat desbideraturik bada ere).


22. Esku-argi baten argia gure inguruko objektuetara bideratzen badugu, konturatuko gara objektu horietako gehienek ez dutela argirik igarotzen uzten. Zer izen ematen zaie argirik igarotzen uzten ez duten objektuei?

.....

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzuna ez da zuzena edo osatugabea da.
1	1	Opakuak

23. Zenbait materialek elektrizitatea igarotzen uzten dute (eroaleak dira) eta beste batzuk, aldiz, ez (EZ dira eroaleak). Ondoko zirkuituan, bonbilla piztuko da bi txintxetak elkartzeko erabiltzen badugu...

- A. egurrezko arkatz bat.
- B. plastikozko errotulagailu bat.
- C. klip bat.
- D. paper zati bat.



24. Euria egiten duenean, batzuetan ortzadarra ateratzen da. Zergatik gertatzen ote da hori? Newton izeneko zientzialari batek, 1666. urtean, prisma batekin 7 koloreak erakutsi zituen. Esperientzia hau laborategian egin daiteke, eta lagungarri izango da argiaren fenomeno hau ulertzeko. Newtoni buruz eta argiari buruz gauza gehiago jakin nahi dugu eta horretarako Interneten bilatu nahi dugu. Azaldu nola egingo zenukeen, ondoko testua osatuz:

Ordenagailua pizten dut. Internet-en sartzen naiz, nabigatzaile bat erabiliz, adibidez **Internet Explorer/Firefox/Chrome** Internet-en sartu ondoren, aukera bat baino gehiago ditut.

Eskura dauden entziklopediaren batean sar naiteke, adibidez ondoko honetan: **Wikipedia, Elhuyar, Ciencia.net**.....

Bilatzaile bat ere erabil dezaket. Bilatzaile bat baino gehiago dago, eta nik erabiltzen dudana da **Google/Yahoo/Altavista/MSN...** Bilatzailean hitz garrantzitsu batzuk sartu behar dira, eta oraingo honetan ondoko 3 hitz hauek idatziko nituzke:

1) Newton ... 2) prisma 3) argia / koloreak / ostadar, ortzadar

“Sartu” edo “Intro” teklari eman ondoren, bilatzaileak zerrenda bat ematen digu. Orduan, nik egiten dudana zera da: **estekak (loturak) ireki eta ikusi zeintzuk diren gaiari buruzkoak...**

Zuzentze irizpideak		
Kodea	Kodea	Kodea
0	0	Erantzuna ez dira zuzenak edo osatugabeak dira. Puntu bana emango da, ondorengo irizpide bakoitzaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> • Nabigatzaile baten izena eman du (Internet Explorer, Firefox, Chrome...). • Entziklopedia baten izena ematen du (Wikipedia, Ciencia.net...). • Bilatzaile baten izena ematen du (Google, Yahoo, Altavista, MSN....) • Adierazitakoen artean 2 hitz eman ditu (Newton, prisma, eta 3 hauetako bat: argia/koloreak/ostadar-ortzadar). • Zerrendaturiko esteka edo loturetan sartzeko modua deskribatzen du (estekak (loturak) ireki eta ikusi zeintzuk diren gaiari buruzkoak...)
1	1	Irizpide bat zuzen
2	2	2 irizpide bat zuzen
3	3	3 irizpide bat zuzen
4	4	4 irizpide bat zuzen
5	5	5 irizpide bat zuzen